

I. ANTTINE TRAIL

Data: 2023/03/11 - **Ordua:** 10.00 - **Lekua:** Asteasu (Iturriotz)

1. LASTERKETA

Igoera kronometraturua izango da. 30^o-ro parte hartzaile bat abiatuko da Iturriotzeko parkingetik. Kirolarien irteera ordena zozketa bidez egingo da. Lasterketa egunaren aurretik lasterkariei bakoitzaren irteera ordua jakinaraziko zaie kirolprobakenean webgunean edota emailez.

Norberaren irteera ordua baina 5 minutu lehenago kontrol gunean sartzeko aukera irekiko da. Lehenago ez. Behin kontrol gunean egonda, norberaren irteera ordurarte itxaron beharko da bertan, antolatzaileak (30^o-ro kirolari bati) irteera eman arte (txirrindularitzako erlojupeko saio baten moduan). Kontrol gunean beroketa ariketak egiteko nahiko leku egongo da bertan daudenentzat.

Martxoaren 9an lasterkari bakoitzaren irteera ordua komunikatuko da korreo bidez.

2. IBILBIDEA

Iturriotz baserri azpiko zubitik hasi, eta basotik ateratzean, eskuinera dagoen aldapa igo eta Gazumeko bidegurutzerantz hartuko da. Hortik bidetara jarraituz Zelatundik igaro eta betiko bidetik igo beharko da Ernioko Gurutzeraino.

3. APARKALEKUA

Iturriotzen bertan aparkalekua egongo da. Denborarekin joatea gomendatzen da. Jendetza dela eta aparkamendua antolatu eta dortsalak jasotzea errazagoa izan dadin.

Kotxe gehiegi etorri eta Parkinga betez gero, Andazarreten aparkatzeko aukera izango da, eta bertatik (kruzetik) organizatzaileen auto bat ibiliko da gora eta behera jendea igo eta jeisten. Zerbitzu hau behar izanez gero, Andazarreten antolatzaileetako bat egongo da informazioa ematen.

4. EGURALDI TXARRA

Eguraldi txarra izanez gero, beharrezkoa izango da gainean xira edo "cortavientos" bat eramatea, lasterketa amaituta beherakoan arazorik ez izateko. Korreoz abisatuko da

beharrezko gauza hauen berri emateko. Kasu hau ematen bada, kontrol gunean sartzeko beharrezkoa izango da.

Eguraldi txarra bada, xira eramateaz gain gurutzean manta termikoak banatuko dira kirolarientzat, Zelatunera jeisterakoan arazorik ez izateko.

5. SARIAK:

Sari banaketa Zelatunen egingo da, azken sailkatuak Hernion amaitu, eta antolatzaile zein kirolariak behera jeistean (12:00-12:30).

- Lehendabiziko gizonezkoa eta emakumezkoentzat: txapela, botila bat ardo eta bakoitzarentzat bi afari Iturriondo jatetxean.
- Bigarrenengo gizonezko eta emakumezkoentzat: botila bat ardo eta bakoitzarentzat bi hamaiketako Patxine tabernan.
- Hirugarrenengo gizonezko eta emakumezkoentzat: gazta eta botila bat ardo.
- Asteasuko lehendabiziko gizonezko eta emakumezkoentzat: kopa eta botila bat ardo.

Zelatunen bertan parte hartzaileentzako hamaiketakoa emango da.

6. IZEN EMATEA:

Gehienez, 16 urtetik gorako kirolarientzat eta 80 izen emate izango dira, izen-emate ordena zorrotz jarraituko delarik internetez. Izen ematea [Información - I. ANTTINE TRAIL \(kirolprobak.com\)](http://Información - I. ANTTINE TRAIL (kirolprobak.com)) orriaren bidez egingo da, 2023ko martxoaren 8a arte. Izen ematea 10€ izango da. Ordainketak, proban parte hartzeko eskubidea eta erantzukizun zibil eta istripu aseguruak edukitzeko eskubidea ematen du. Behin izena emateko kuota ordainduta, proban parte hartzen ez duenari ez zaio dirurik itzuliko.

7. SEINALIZAZIOA:

Ibilbidea zintarekin eta laguntzaileekin behar bezala markatuta eta ikusgai egongo da.

8. KRONOMETRAJEA

Lasterketaren kronometrajea Kirol Probak-ek egingo du. Parte-hartzaileek sailkapenak jarri ondoren, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko, denbora hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez balego, sailkapenak behin betikoak izango dira.

9. IRTEERA ETA HELMUGA

Irteerako eta helmugako alfonbrak egongo dira, eta bi alfonbren artean markatutako denbora sailkapen orokorrerako zenbatuko da. Garailea denbora gutxien erabiltzen duena izango da ibilbidea egiten, ez lehena iristen.

10. DORTSAL BANAKETA

Dorsalak jasotzea: Egunean bertan 8:30-9.45 bitartean irteera gunean.

10. INGURUGIROA

Lasterketa, bere osotasunean, natura gune zoragarri batean zehar iizango da da. Hori dela eta, ingurua babestea derrigorrezkoa izango da eta debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.

11. OSASUN ZERBITZUA

Antolakuntzak Larrialditarako osasun zerbitzua jarriko du ibilbideko lekurik estrategikoenetan.

12.SEGURTASUNA

Antolakuntzak, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea dauka, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen badute, garaiko osasun egoera edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa batzordearen adostasunarekin.

13. LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Parte-hartzaileak, antolakuntzari laguntza beharrea aurkitzen diren parte-hartzaileen berri ematera behartuak daude.

14. ERANTZUNKIZUNA

Antolakuntzak bere gain hartuko ditu ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolakuntzak ez du bere gain hartuko. Parte-hartzaileak euren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.

15. IRUDI ESKUBIDEAK

Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea.

16. ANOA GUNEA

Ibilbide erdian (Zelatungo bordan), ura eskainiko da.

17. KONSIGNA

Antolatzaileek lasterkarien motxila txiki bat Iturriotzetik Zelatungo bordara igotzeko zerbitzua eskainiko dute. Horretarako 8.30-9:45 bitartean dortsalak jasotzen diren lekuan motxila entregatu beharko da.

18. ONARTZEA

Lasterketan parte hartzean, araudia onartzen dela ondorioztatzen da.